

## URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>IKASTETXEA</b>	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	<b>KODEA</b>	012681
<b>IRAKASGAIA</b>	PRAKTIKA INSTRUMENTALA 1 ETA 2	<b>MAILA</b>	3. ETA 4. OINARRIZKO IKASKETAK

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p><b>HELBURU OROKORRAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Bat-bateko irakurketa hobetzea diskurtso musikal egokia mantenduz.</li> <li>Taldeko interpretaziora ohitzea.</li> <li>Diskurtso musikal polifonikoaren kontzientzia gaitasuna lantzea beharrezkoa den obretan.</li> </ol> <p><b>BEHIN-BEHINEKO HELBURUAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Instrumentuaren bakarkako praktikan landu eta barneratutako alderdi tekniko gehienak, ahal izanez gero guztiak, sendotzea.</li> <li>Pultso erritmikoaren kontzientzia-hartzea nahiz taldeko adierazpen dinamikoa lantzea eta ahalbidetzea.</li> <li>Interpretazio koordinatua posible egiten duten oinarrizko keinuak ezagutzea eta burutzea.</li> <li>Obra musikal bat osatzen duten alderdi ezberdinen koordinazio egokia lortzea erritmoari, agogikari, ñabardura dinamikoari eta fraseatzeari dagokienez.</li> <li>Ikasle bakoitzak bere partitura guztiz kontrolatzea taldean jotzeko oinarrizko baldintza gisa.</li> </ol>	<p>Praktika Instrumentalaren irakasgaiak ezinbestekoa den funtsezko baldintza bat dauka: interprete ezberdinen arteko koordinazioaren nozio perfektua lortzea hain zuzen ere. Horretarako, tempo eta edo konpasa bezalako kontzeptuak lantzea eta barneratzea behar-beharrezkoa suertatzen da gelako eguneroko lan dinamikan.</p> <p>Alderdi hauek ere baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zailtasun progresiboa duten obren bat-bateko irakurketa, irakaslearen irizpidearen arabera.</li> <li>- Duten zailtasuna dela eta, etxean alde aurretiko lan bat behar duten obren prestakuntza eta interpretazio egokia burutzea, bakarkako piano irakasgai egiten duten moduan.</li> <li>- Taldearen barruan erantzukizunez ekitea aldi berean bakarkako nahiz taldeko praktikari arreta emanez. Horretaz gain, gelan jarrera positiboa eta laguntzailea mantentzea.</li> <li>- Klaseetara etortzea.</li> </ul>

### Edukien sekuentziak

- Soinu-unitatea: atakea, artikulazioa, erritmoa eta fraseatzea.
- Agogika eta ñabardura dinamikoa.
- Soinu eta plano ezberdinen arteko oreka.
- Koordinazio armoniko eta erritmikoarekin erlazioatutako ariketak. Era berean, inprobisazio melodiko eta harmonikoari buruzko ariketak.
- Tardearen barruan jarrera positiboa, aldi berean bakarkako interpretazioari nahiz tardekoari arreta emanez.
- Isilunearen balorazioa interpretazioaren osagarri gisa.
- Estilo eta garai ezberdinen obren forma-azterketa.
- Keinu anakrusikoen ikasketa eta praktika zuzendari baten esku-hartzearen beharrik ez izateko.
- Etxeko lan egokiaren errealizazioa klasean lantzen diren obrak era egokian interpretatu ahal izateko.
- Bat-bateko irakurketan jarotasun egokia, lantzen diren obren zailtasuna pixkanaka handituz eta interesgarria suertatzen bada transportarene hastapena jorratuz.
- Lau eskuetarako erreperorioaren hastapena.
- Lau eskuetarako obretan pedala erabiltzearen hastapena.

## METODOLOGÍA

- Bat-bateko irakurketa.
- Bakarkako nahiz taldeko inprobisazioa.
- Lau eskuetarako obra errezen interpretazioa kide batekin edo irakasle berarekin joaz.
- Lan interpretatiboaren aplikazioa taldeko interpretazioetan.
- Pianorako estilo nahiz talde ezberdinen konposizioen entzumena. Horretaz gain, ahots-musika, ganbara musika eta musika sinfonikoaren entzumena.
- Lau eskuetarako obrak saileko audizio ezberdinen egitarauetan.
- Ikasleak erakusten duen teknika nahiz interpretazio maila egokiak direnean, eta beti irakaslearen irizpidearen arabera, lehiaketa edo eta beste musika ekitaldiren batean parte hartzea kontutan hartuko da.

### PIANORAKO LAU ESKUETARAKO OBREN ERREPERTORIO PROPOSAMENA:

Die Russische Klavierschule band 1	Sikorski
Duet Favorites Level 1, 2, 3	Bastien
Duet for Fun 1 edo/ o 2	Bastien
El Piano	Tchokov Gemiu
Children's Classic Piano Volume 1 - 2	Henry Lemoine
The Best Piano Duet, Book Ever !	Chester Music
Les Plaisirs du Piano à 4 mains	Henry Lemoine
Chester's piano Duets Vol. One - Two	Chester Music
Duets at their Best! Book 1	The FJH Music Company INC
Two's Company for Piano Duet	Novello Publishing Limited
Collection Mes Premiers Pas Vol. 1	Henry Lemoine
Duets with a Difference Book 1	Oxford
FJH Duets At Their Best ! Book 1	The FJH Music Company INC
Jazz, Rags, Blues for Two Book 1	Alfred
Terrific Tunes for Two Book 1	Alfred
Treasures for Two Book 1	Alfred
The Four-Handed Keyboard Crocodile	Breitkopf
Disney Duets	Hal Leonard
Crossing Borders Book Two and Three	Peters
Up-Grade (0 - 1)	Faber Music Ltd
Colección de Bailables fáciles	Boileau
The Microjazz Duets collection 1	Boosey&Hawkes
Cantos Vascos	www.andoain.org

Mit 4 Händen um die Welt "Europeo"	Schott
The Four - Handed Keyb. Crocodile	Breitkopf
Les Joies des Duos de Piano	Yorktown Music Press, Inc.
Duets You`ve Always Wanted To play	Chester Music
Easy Original Piano Duets	Amsco Publications
Klavisu Mozaika (Mosaico de las teclas)	<a href="http://www.tamsta.com">www.tamsta.com</a>
The Classic Experience	Cramer Music Ltd.
Classic Experience Encores	Cramer Music Ltd.
Images of An Artistic Infant op 9	M. Wilson /Petrucci
Pièces mélodiques op 149	A. Diabelli/Peters
Enfant Pianiste	M. Bernard/Petrucci
Twelve Four - Hand Pieces op 85	R. Schumann/G. Schirmer, Inc.
4 Impressions	A. Kruisbrink/M. van Teeseling
6 Pièces Enfantines op 34	A. Arensky/Rob. Forberg
Razzamajazz	S. Watts/Kevin Mayhew
Four - Hand Fun	Warner Bross
Movie Hits for Two ( Disney)	Hal Leonard
The Rodgers and Hammerstein	Hal Leonard
Il Rosso e Il Nero	R. Vinciguerra/Curci
Microjazz Duets I , II	Ch. Norton/Boosey & Hawkes
Step it Up! Grado 1 - 2	Louise Chamberlain/Faber Music Ltd.
Step it Up! Grado 2 -3	Louise Chamberlain/Faber Music Ltd.
Tea for Two	Mike Cornick/Universal Edition
Piano Ragtime ( Duets)	Mike Cornick/Universal Edition
Jazz, Rags & Blues for Two - Book 3	M. Mier/Alfred
After Hours for Piano Duets	P. Wedgwood/Faber Music Ltd.

BÄRENREITER PIANO ALBUM VIERHÄNDIG Ed. Bärenreiter Urtext  
 EASY ORIGINAL PIANO DUETS AMSCO  
 EIGHTEEN ORIGINAL PIANO DUETS Ed. Schirmer  
 EL COCODRILO DEL TECLADO Ed. Breitkopf  
 EMONTS Mit 4 Händen um die Welt Ed. Schott  
 BACH, J. CHRISTIAN Drei Sonaten Ed. Peters  
 BACH, J. CHRISTOPH Sonata en Do Ed. Noetzel  
 Sonate en La M Ed. Schott Musik International  
 BEETHOVEN Quinze petites dances Ed. Universal  
 Drei Märsche Op. 45 Ed. Peters

BRAHMS Valses Op. 39 Ed. Henle Urtext  
CASTELLS I BLANQUER Records d'infantesa Ed. Casa Beethoven  
CZERNY Gran sonata brillante Op. 10 Ed. Carisch Urtext  
DIABELLI Quatre Sonatines Op.24, 54, 58, 60 Ed. Durand  
Jugendfreuden Op. 163 Ed. Peters  
Sonaten Op.32, 33, 37, 38, 73 Ed. Durand  
DVORAK Slawische Tänze Op.46, 72 Ed. Peters Urtext  
FAURÉ Dolly Op.56 Ed. Leduc  
GRANADOS 2 Marchas militares Ed. Boileau  
GRIEG Wedding day at Trolhaugen Op. 65, Nº 6 Ed. Peters  
Danzas noruegas Op. 35 Ed. Peters  
Dans la Grotte du roi de la montagne Ed. Bourges  
Sonate en Sol m Op. 13 Ed. Durand  
HAYDN Divertimento "Il maestro e lo scolare" Hob.XVIIa:l - Ed. Henle Urtext  
KUHLAU 6 Sonatinen Op. 44 y Op.66 Ed. Peters  
MOSKOWSKY Danzas españolas Op. 12 Ed. Peters  
MOZART Werke für Klavier zu vier Händen Ed. Henle Urtext  
RAVEL Ma mère l'Oye Ed. Durand  
SAINT SAËNS Berceuse Op.105 Ed. Durand  
SCHUBERT Ländler für vier Hände Ed. Schott  
Ländler und Stücke D.814 Ed. Peters  
Tres marchas militares D. 733, Op. 51 Ed. Lemoine  
Polonesas, D.824, Op. 61 Ed. Peters  
SCHUMANN Original-Kompositionen Op.66,85, 109,130 Ed. Lemoine  
SCHÜNGELER Cancons alemanyes Ed. Schott  
SZELÉNYI Húsz könnyű zongoradarab négy kézrev Ed. Música Budapest  
TARÁCS Klavierstücke zu 4 Händen Ed. Universal  
TCHAIKOVSKY 50 canciones populares de Rusia Ed. IMC  
VILA I GUTIERREZ Toquem el piano. Vol.1 y 2 Ed. Clivis  
WATERMANN Christmas Carol Time Ed. Faber Music  
WEBER Original Kompositionen Ed. Peters

**LAU ESKUETARAKO ERREPERTORIOA:**  
**GARAIKIDEA ETA JAZZ**

BRIMHALL'S Popular easy piano duets Ed. J. Brimhall  
CHARTEUX Piano Jazz Blues Ed. Van de Veld  
DENNYS Three way stretch for piano three player Ed. Novello  
HIRSCHBER Duets are fun. Vol 2 Ed. Musicord Publicatios, USA  
NORTON Rock duets Ed. Boosey & Hawkes  
RUNSWICK Boogie duets for beginners Ed. Faber Music  
VVAA Das Tasten Krokodil Ed. Breitkopf  
WILLEMS Morceaux aus quetre mains Ed. Pro Musica

EBALUAZIO INSTRUMENTUAK	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Praktika instrumentaleko ikasleak ebaluazio jarraiaz ebaluatuko dira. Honela, etxean nahiz klase bakoitzean burutzen duten lana, jarrera, edukien barneratze prozesua, nahiz entzunaldi ezberdinetan erakusten duten interpretazio maila kontutan hartuko dira.</p>	<p>Ebaluazioa hiruhileko bakoitzaren amaieran burutuko da. Irakasle bakoitzak beharrezkoak diren froga kopurua gauzatzeko aukera izango du, beti ere bere ikaslegoaren helburuen lorpena balioztatzeko asmoz eta baita ere aurreko atalean aipatutako alderdi ezberdinak ebaluatzeko asmoz.</p> <p>Ebaluazioa portzentai ezberdinetan zatituko da, jarraian ikus daitekeen moduan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Helburuen lorpen maila: 60%</li> <li>b) Jarrera, portaera eta etxeko-lanen prestakuntza: 40%</li> </ul>
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
<p>Irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek irakaslearen adierazpenak jasoko dituzte zein alderdi zuzendu behar duten jakin ahal izateko. Irakaslearen irizpidearen arabera froga praktikoren bat burutzea proposatu ahal izango da, edo eta ebaluazio horren edukiak hurrengo hiruhilekoan berrikusi ebaluazio jarraiaz.</p>	

#### OHARRAK

Irakaslearen irizpidea kontutan hartuko da praktika instrumentaleko ikasleagoa antolatzeko orduan. Honela, irakasgaiaren ezagutza kondiziorik onenetan eman ahal izango da ikasle bakoitzaren trebetasunak nahiz gaitasunak funtsezko oinarritzat hartuta.

Helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazio irizpideak era orokorrean ezarrita daude, sail honek bi mailetarako baliozgarriak direla ulertzen baitu.